


DEKALOGOA

Ikasketa Zerbitzua eta Berdintasuna



DEKALOGOA

1 GENERO PERSPEKTIBA

Genero perspektiba aplikatu ikasketa Zerbitzu proiektuetan. Ikuspuntu honek neska mutilen beharrizan espezifiketatik hasita lan egitea bultzatzen du. Horren bitartez, garapenerako dauden aukerak benetakoak eta berdinak izatea bermatu nahi da, behin dauden ezberdintasun eta injustiziak identifikatu eta ezabatu ostean. Ikasleak haien generoaren ondorioz zelan eraikitzen duten haien izateko modua ikus dezaten egiten da hau. Eta beraz zerbitzuak, ekintzak eta hezkuntzak berak ezin dute inor diskriminatu generoarekin zerikusia duen ezergatik. Ezta batzuk “maskulino” edo “femenino” direla argudiatu ere ez.

2 ANALISIA

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunetatik hastea proiektu bat hastean, hau diseinatzean. Horren ostean, beharrizan praktikoetan (inguru zehatz bateko emakumeen diskriminazioa aztertu eta horren kontra lan egin) edo estrategikoetan (genero erlazioak eraldatu, ezberdintasunen izaera estrukturala aztertu, neskak ahaldundu, mutilak maskulinitatearen inguruan hezi, tratu onak bultzatu, komunitatea sentsibilizatu...) zentratuko garen erabaki beharko dugu.

3 BEHARRIZANAK

Proiektua planifikatu baino lehen, ikasketa zerbitzu proiektuak emakume eta gizonengan eduki ahal duen efektu ezberdina landu behar da. Hau da, batzuen eta besteen beharrizanak beteta ikusiko diren aztertu beharko da, eta baita ea denok modu berean parte hartu ahalko duten.

4 ZERBITZUA

Lortu nahi den aldaketa lortzeko behar diren helburu argiak, zehatzak eta benetakoak ezarri behar dira, eta hauek genero ezberdintasunengan dituzten efektuak landu behar dira. Helburuekin bat egiten duten ekintza koherenteak ezarri behar dira. Helburuen puntu garrantzitsuak ezarri (kuantitatibo eta kualitatiboak), gero hauen ebaluazioa egiteko.

5 IKASKETA

Ikasleen eta irakasleen ezagutzen eta abilezien ikuspuntu ez-sexista bat mantentzea, proiektua ondo garatzeko. Ikasketa zerbitzu proiektuei zentzua eman behar zaie, sentsibilizazioaren bitartez eta berdintasunean eta biolentzia matxista alde batera utziz. Jarrera matxistak bilatu, aurkitu eta landu. Hainbat genero identitateen existentzia onartu eta landu. Dibertsitatea bultzatu eta landu. Dauden erlazio afektibo-sexual ezberdinak ezagutzera eman.

Ikasketa Zerbitzua eta Berdintasuna

DECALOGO

6 PARTE HARTZEA

Neska-mutilen parte hartze orekatua sustatu metodologia parte-hartzaileen bitartez, taldean lan eginez eta lehiakortasuna eta indibidualtasuna alde batera utziz.

7 HAUSNARKETA

Proiektuaren fase guztiak (beharrizanen hausnarketa, diseinua, betearaztea, ebaluazioa...) genero ikuspuntutik begiratu. Beharrizanek erantzuna lortu den, ze zailtasun dauden... sexu bietatik. Genero berdintasuna bete ezin bada, honen arrazoiak aztertu.

8 HIZKUNTZA BARNERATZAILEA

Sexista ez den hizkuntza eta argazkiak erabiltzea proiektuan: material didaktikoak, komunikazioak, ekintzak...

9 ERAGINA

Genero adierazleekin proiektua ebaluatu, horrela gizon eta emakumeen artean dauden ezberdintasunak eta diskriminazioak argi uzteko, eta proiektuaren ondorioz aldatu ahal izan diren gauzak argitzeko. Kanpoko ikuspuntua (zerbitzuaren ondorio argiak) eta barrukoa (ikuspuntuaren aldaketa, parte hartze orekatua) hartu behar dira kontutan honetarako. Informazio guztia sexuagatik bereizi (proiektuaren datuak eta ekintzak, analisia, informeak...).

Ez da ea ZEIN aktibitate berri egitearen kontua, baizik eta hauek ZELAN egiten ditugun dagoeneko egiten duguna hobetzeko. Ikasketa zerbitzu proiektuetan genero ikuspuntua sartu behar dugu honen fase guztietan_____

10 TRANSBERSALITATEA